

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 2069

*AGINDUA, 2023ko martxoaren 31koa, Hezkuntzako sailburuarena, Eskoriatzako Udal Haur Eskola irekitzeko eta jardunean jartzeko emandako baimena azkentzeko dena.*

Eskoriatzako (Gipuzkoa) «Eskoriatza» Udal Haur Eskolaren titularra den Eskoriatzako Udalak eskatuta hasitako espedienteaz aztertu da. Jarduerak uzteagatik ikastetxe horri emandako baimena iraungitzeko eskatu da espediente horretan.

Espediente hori ezarritako prozeduraren arabera izapidetu da, indarrean dagoen araudiak eskatutako dokumentazioa erantsi zaio espedienteari, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek txostena egin dute.

Arau hauek ikusi dira: azaroaren 16ko 215/2004 Dekretua (azaroaren 19ko EHAA), 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri, eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikulua batzuk indarrean iraunarazten dituen (azken dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan); abenduaren 17ko 297/2002 Dekretua (abenduaren 31ko EHAA), 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautzen dituen. Horiek horrela, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Ondoren zehazten den Udal Haur Eskola irekitzeko eta jardunean jartzeko baimena iraungitzea, jarduerak bertan behera uzteagatik:

Kode-zenbakiak: 013228 (EAE) eta 20012924 (unibertsala).

Izen orokorra: Udal Haur Eskola (UHE).

Izen espezifikoa: «Eskoriatza».

Titularra: «Eskoriatzako Udala».

Helbidea: Aramburuzabala kalea 1.

Lurralde Historikoa: Gipuzkoa.

Udalerria: Eskoriatza.

2. artikulua.– Baimen hori iraungitzeak 2023-2024 ikasturteetik aurrera izango ditu ondorioak, eta une horretan baja emango zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroan duen inskripzioari.

3. artikulua.– Berrito irekitzeko eskatuz gero, ikastetxe pribatuak baimentzearen arloan indarrean dauden xedapenetan jasotako aginduak bete beharko dira.

#### AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo

2023ko maiatzaren 4a, osteguna

egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 31.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.